

## EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZA ZUZENAK COVID 19 I+G PROIEKTUAK FINANTZATZEKO

### XEDEA

Coronavirusaren aurkako borrokarekin zerikusia duten I+G proiektuak finantzatzea, bai eta larrialdi sanitarioaren ondorio sozioekonomikoak arintzearekin eta berreskuratzearekin zerikusia dutenak ere, itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen bidez.

### ERAKUNDE ONURADUNAK

Enpresak edo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileak.

### PROZEDURA

#### I. fasea

Enpresek edo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileek interes-adierazpenak bidali ahal izango dituzte, arreta berezia jarriz oinarritzen dituen presazko eta premiazko analisisan, honako helbide elektronikoa honetara: [i+dcovid19@spri.eus](mailto:i+dcovid19@spri.eus). UPV/EHU AGENTEAREN KASUAN, IKERKETA ERREKTOREORDETZATI KUZENEAN EGINGO DA BIDALKETA (DEIALDIEN ATALA). informazio gehiago "UPV/EHUko Barne-prozedura" atalean.

Interes-adierazpenaren edukia:

Contenido de la Expresión de Interés:

- o Helburuak
- o Gauzatze-aldia
- o Parte-hartzaileak
- o Gutxi gorabeherako aurrekontua

### PROIEKTU MOTAK

### LAGUNTZAREN INTENSITATEA

Oinarritzko ikerketa	%100 erarte
Ikerketa industrial	%50 erarte*
Garapen esperimental	%25 erarte*

\*Intensitate hauek handitu ahal izango dira, Kategorien arabera Salbuespenen Erregelamendu Orokorren 25.artikuluari jasotako tamainagatiko edota lankidetzagatiko primekin.

### DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK

- Langileen kostu zuzenak eta zeharkakoak (ikertzaileak, teknikariak eta eskatzailearen plantillakoak diren eta ikerkuntza-jarduera horretan enplegatuta dauden bestelako laguntzaileak), proiektura bideratuta dauden heinean.
- Kanpo-aholkularitza eta zerbitzu baliokideen kostua (erakunde parte-hartzaileen pertsonala ez den pertsonal lankidea eta proiektuaren espezializazio handiko zatien azpikontratazioa barne. Zerbitzu horiek eksklusiboki eta era

convocatorias.dgi@ehu.eus  
www.ehu.eus

BIZKAIKO CAMPUSA  
CAMPUS DE BIZKAIA  
Sarriena Auzoa, z/g  
48940 LEIOA  
T: 94-601.8008  
F: 94-601.5856

iraunkorren ikerkuntza-jarduerarako erabiliko dira eta kanpo-hornitzaileei erositakoak izango dira, jakintza tekniko eta teknologikoak barne.

- c) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko agenteak, hartarako akreditatutakoak, azpikontratatzearen ondoriozko gastuak.
- d) Aholkularitza-kostuak eta proiektura soilik bideratutako zerbitzu baliokideak
- e) ETEentzako jabetza-eskubide industrialen kostuak
- f) Ikerkuntza-jardueraren ondorioz zuzenean hartutako ustiapen-gastuak (hala nola materialen eta hornikuntzen gastuak...)
- g) Ikerkuntza-jarduerarako soilik eta era jarraituan erabilitako instrumentu eta ekipamenduen gastuak: ikerkuntza-jardueretan soilik eta era jarraituan erabilitako ekipamendu eta instrumentuen kostuen amortizazioa proiektuan zehar, doan lagata lortutakoen kasuan izan ezik.

### **Barne-mailan UPV/EHU-n:**

- Ez da onartuko tresneria eta ekipoa erostea.
- Ez da ekipamendu informatikoa erostea onartuko.
- Jardunaldi osoa duten UPV/EHUko plantilako langileek 23 €/orduko kostua egotzi ahal izango dute langileen zeharkako kostu gisa. Lanaldi partzalean dauden unibertsitateko irakasle elkartu klinikoek eta zientziaren lege doktoreek, ZTBL-ko 22. artikulua, 0 €/orduko kostuan parte hartu ahal izango dute.

### **UPV/EHUKO BARNE-PROZEDURA**

"EJ-ren COVID 19 I+G proiektuak finantzatzeko zuzeneko laguntzak" deialdira interes-adierazpena aurkezteko asmoa duen UPV/EHUko personal ikertzaileak, e-mail bat bidali beharko du [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus) e-mail helbidera, "Covid 19 GoVa I+G laguntzak" interes-adierazpen txantiloia beteta, aurkezteko interesa duela adieraziz. Plantila hori eskuragarri egongo da Ikerketa Errektoreordetzaren webgunean.

**SPRIk COVID 19 I+G laguntzak kudeatzeko erabiltzen duen helbide elektronikora bidalketa zuzenean Ikerketa Errektoreordetzatik (Deialdien Atala) egingo da, jasotako interes-adierazpenen berrikuspen labur bat egin eta horien aurkezpenari oniritzia eman ondoren.**

### **Proiektuaren arduradunak bete beharreko UPV/EHUrekiko lotura harremana**

**Proiektuaren arduradun** gisa, honako hauek aurkeztu ahal izango dute interesekoa den adierazpena: UPV/EHUko ikertzaileek, baldin eta funtzionario-lotura edo lan-kontratu iraunkorra badute eta dedikazio osoa badute; irakasle atxikiek eta plaza iraunkorrerako egiaztatutako atxiki izandako laboral interinoek; atxikipen edota kontratu bidez UPV/EHUekin lotutako Ikerbasque programako ikertzaileek; Ramón y Cajal ikertzaileek; eta UPV/EHU-CSIC zentro mistoetako kanpoko langileek.

## **Gainerako taldekideek bete beharreko UPV/EHUrekiko lotura harremana**

Taldeko kide bezala hurrengoak jua ahal izango dira: UPV/EHUko ikertzaileak, baldin eta funtzionario-lotura edo lan-kontratu iraunkorra badute eta dedikazio osoa badute; irakasle atxikiak eta plaza iraunkorrerako egiaztatutako atxiki izandako laboral interinoak; atxikipen edota kontratu bidez UPV/EHUekin lotutako Ikerbasque programako ikertzaileak; Ramón y Cajal ikertzaileak; eta UPV/EHU-CSIC zentro mistoetako kanpoko langileak.

Era berean, taldeko kide izan ahalko dira lan-lotura ez-iraunkorra eta dedikazio osokoa duten UPV/EHUko ikertzaileak, baita dedikazio partziala duten unibertsitateko irakasle elkartu klinikoak ere, baldin eta lotura horrek urtebete edo gehiagoko iraupena badu, interes-adierazpena aurkezten den egunetik zenbatzen hasita.

Proiektu jakin baterako obra zerbitzuagatik kontratatutako ikertzaileak ezingo dira taldeko kide izan.

Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonala ezingo da taldekide izan.

### **II. fasea**

**Aurre-ebaluaketa egin ostean, SPRI-tik jakinaraziko digute zein proiektu pasatuko diren bigarren fasera, IDI-n eskaera normala egiteko aplikazioan, eta hau derrigorrez LEGEZKO ORDEZKARIAK (UPV/EHUko Ikerkuntzako Errektoreordeak) sinatuta egon beharko da.**

### **LOTURAK ETA KONTAKTUA**

Deialdiaren oinarrietara esteka, klikatu -> [EUSKO JAURLARITZAREN I+G COVID 19 LAGUNTZAK](#)

**SPRI**

[i+dcovid19@spri.eus](mailto:i+dcovid19@spri.eus)

**UPV/EHU**

[convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus)